

AZPEITIKO HERRIKO EKONOMIA SUSTATZERA ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

OINARRI OROKORRAK

1. Xedea.

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen xedea, Azpeitiko Udalak herriko ekonomia sustatzeko emango dituen dirulaguntzak arautzea da.

Laguntza horien azken helburua herriko ekonomia sustatzea da, enplegua sustatuz, industria-proiektuei eta gizarte-helburuak dituzten proiektu ekintzaileei lagunduz, horretarako hainbat baliabide emanez.

Lau dirulaguntza lerro aipa daitezke:

- 1) Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.
- 2) Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorea sustatzera bideratutako dirulaguntzak.
- 3) Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak.
- 4) I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak.

Hurrengo artikuluetan eta oinarri espezifiko bakoitzean, lerro bakoitzerako laguntzak emateko erabiliko diren irizpideak eta prozedurak jasotzen dira, eta hura osatzen duten diruz lagun daitezkeen jarduerak zehaztuko dira.

2. Erakunde onuradunak.

2.1. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte jarduera-ildo bakoitzerako oinarri espezifikoetan zehaztutako erakunde onuradunek.

2.2. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradun izateko, erakunde eskatzaileek ezin izango dute Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko debekurik izan, eta oinarri hauetan adierazitako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

2.3. Aurreko paragrafoan adierazitakoa egiaztatzeko, erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du.

2.4. Onuradun izateko debekurik ez dagoela justifikatzeko, lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabili ahal izango dira, dagokion araudian ezarritakoaren arabera edo administrazio-ziurtagiri bidez, kasuaren arabera. Agintari eskudunak ziurtagiri hori eman ezin duen kasuan, dirulaguntzaren eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da, dagokion urteko deialdian zehazten den ereduaren arabera.

2.5. Ez dira inola ere onuradun izango giza eskubideen aurkako helburuak, onarpen edo sarbide sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jarduera dituzten erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean aurreikusitako kasuetan erortzen direnak ere.

2.6. Ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten erakundeek, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legedian ezarritako baldintzetan.

2.7. Beren izaeragatik eta xedeagatik beste udal-sail edo erakunde autonomo batzuetako beste programa batzuei atxiki behar zitzaizkienak ezin izango dira inola ere onuradun izan. Kasu horretan, instrukzio fasearen aurretik eskaera jasotzen denean, dagokion sailari edo erakundeari helaraziko zaio eskaera, eta interesdunari horren berri emango zaio.

2.8. Ezingo dira onuradun izan zerga-zorrak edo zehapenak betearazpen-aldian dituztenak, baldin eta atzeratuta, zatituta edo etenda dauden tributu-zorrak edo zehapenak direnean izan ezik.

2.9. Jarduera berrien kasuan Udalak emandako jarduera-lizentzia eta deialdi hau baino lehenagoko jardueren kasuan gutxienez jarduera erregularizatzeko plan bat. Jardueraren izaera dela eta bere erregularizazioa urte bete baino gehiago luzatuz gero, Udalak horren jarraipena egingo du.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Gastu hautagarri modura hartuko dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen jardueraren banakatutako eta zehaztutako aurrekontuan jasota agertzeaz gain, haren garapenarekin zuzenean lotuta daudenak eta diruz lagundu daitezkeen jarduera bakoitzerako oinarri espezifikoetan aurreikusten direnak.

3.2. Ez dira diruz lagungarri izango zeharkako zergak (BEZa kasu), berreskuratu edo konpentsatu egin daitezkeenean.

3.3. Orobat, gastu guztiak merkatuko batez besteko prezioekin bat etorri beharko dira.

3.4. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan diruz ezin lagundu daitezkeen gastuak jasoko balira, edo diruz lagundu daitezkeen gastu izanik horietarako ezarritako muga gaindituko balute, edo modu nabarian neurritz gaindikoak izango balira, horiek baztertu edo alboratu egingo dira, dirulaguntzaren muga zehazteko oinarri modura baliagarri izango den diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontua ezartze aldera.

3.5. Egindako gastutzat hartuko da zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena, halaber onartu egingo dira dirulaguntzaren erakunde onuradunak ordaintzeko dituen gastuak, dagozkien faktura edo froga-balio baliokidea duten agirien bidez justifikatuta daudenean.

4. Dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.

4.1. Eskaerak aurkezteko modua: Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdi honetan zehaztutako ereduaren arabeko eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute.

Normalizatutako inprimakia Udalaren sarrera erregistroan, Udalaren webgunean eta Azpeitia Berritzen SAREN bulegoetan (Enparan Kalea 34) eskuratu ahal izango da.

Eskaerak aurkezteko bideak:

— Aurrez aurre: eskabideak Azpeitiko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu ahal dira, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30etara, eta ostegunetan 19:00ak arte (udako ordutegia egunero 07:30etatik 14:30etara), bai eta Azpeitia Berritzen SAREN bulegoetan ere, astelehena, asteazkena eta ostirala 08:00etatik 14:30etara, asteartea 08:00etatik 13:30etara eta 14:30etatik 17:30etara eta osteguna 08:00etatik 13:30etara (udako ordutegia egunero 08:00etatik 14:30etara) edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan. Eskatzaileak eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakitzen badu, gutun-azal irekian aurkeztuko du, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari.

— Kanal elektronikoa: eskabidea modu elektronikoan aurkeztu ahal izango da udalaren web-helbidean: <http://www.azpeitia.eus>.

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bide presentziala edo elektronikoa erabiltzeak, ez du esan nahi nahitaez erabili behar denik prozeduraren hurrengo izapideetan, eta edozein unetan alda daiteke.

Eskabidea ordezkari baten bidez egiten bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.2. Aurkeztu beharreko agiriak: Pertsona eskatzailea ez dago behartuta Azpeitiko Udalari aurrez eman dizkion dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskudunak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezan, edo ezin badu, beste bitarteko batzuen bitartez egiazta dezala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizuna.

Halaber, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako agiriak ez aurkezteko, 39/2015 Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2 artikulua arabera. Azpeitiko Udalak zuzenean eskatuko dizkio sektore publikoko edozein erakunderi Oinarri Orokor eta berezietan eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatze behar diren datuak. Hala ere, eskatzaileak aurka egiteko eskubidea du, eta aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamenduaren 21. artikulua).

Izaera orokorrean, eskaera-orriarekin batera (Eskaera eredua), honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Sozietatearen eraketa eskrituraren, estatutuen eta Merkataritza Erregistroan izena emana egotearen agiriaren kopiak, hala dagokionean. Elkarteen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko da.

2. Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

3. Proiektuaren informazioa, proiektuaren deskribapena eta baloratu nahi den puntu bakoitza jasoko dituen, eta informazio horren euskarri diren akordioak eta ziurtagiriak erantsiko dituen. Sartzen diren alderdiak bakarrik hartuko dira kontuan.

4. Banku-erakunde batek edo aurrezki-erakunde batek emandako agiria, bere izenean dagoen kontu korrante baten titulartasuna ziurtatzen duena.

5. 50 langiletik gorako enpresen kasuan, berdintasun plana eginda dagoela ziurtatzen duen dagokion erregistro ziurtagiria.

Bitartekotzako plataformatik eskatuko diren zerbitzuak edo udalak bere esku dituen datuak:

—Udala:

1. Proiektua gauzatzeko den jarduera gauzatzeko gaitzen duen tituluaren kopia (jarduera sailkatuaren lizentzia edo jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena), edo hala badagokio, eskabidea udal-erregistroan aurkeztu izanaren egiaztagiria.

2. Azpeitiko Udalarekiko zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

—Bitartekotza plataforma:

1. G.F.A.: Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeen kontsulta.

2. G.F.A.: Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

4. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - Nortasun-datuen egiaztapena.

4.3. Eskabideak aurkezteko epea urteko deialdian finkatuko da.

2025eko deialdiari dagozkion eskabideak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

5. *Eskaeraren akatsak zuzentzea.*

5.1. Eskaerak edo horrekin batera aurkezten den dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzendu ditzan; eta adieraziko zaio hori egin ezen, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 21.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5.2. Organu instruktoreak eskatzaileari eskatu ahalko dio eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro.

6. *Emateko prozedura.*

6.1. Deialdi honetan araututako dirulaguntza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22 artikuluan ezarritakoaren arabera emango da, eta Eranskin bakoitzean laguntza emateko modua zehaztuko da.

6.2. Prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak onartutako eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako deialdi publikoaren bidez.

7. Eskaeren ebaluazio irizpideak.

Deialdira aurkezten diren eskaerak oinarri arautzaile espezifikoetan jarduera lerro bakoitzerako zehazten diren irizpideen arabera baloratuko dira.

8. Gehienezko zenbatekoa eta bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.

8.1. Jarduera lerro bakoitzerako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa oinarri arautzaile espezifikoetan ezartzen da.

8.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzaileak helarazitako dokumentazioaren arabera ezarriko da, aurrekontuaren erabilgarritasuna eta jarduera-ildo bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztutako dirulaguntzak baloratzeko irizpideak kontuan izanik.

8.3. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetako edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatutik eratorrita, helburu bererako diren beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, batera gertatzen diren beste dirulaguntzak arautzeko araudian horri dagokionez ezar daitekeenaren kalterik gabe.

8.4. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoa ezingo du, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen zenbatekoa izan, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batekin batera.

8.5. Dirulaguntza emateko kontuan izaniko baldintzetan egiten den edozein aldaketak eta, edozein kasutan, oinarri hauetan baimendutako kasuez aparteko bestelako ekarpen batzuen eskurapenak, emakidaren ebazpena aldatzea ekarri ahalko du.

9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak eta erakunde laguntzaileak.

Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2. artikuluan xedaturikoaz bat eginda, Azpeitia Berritzen S.A.k erakunde laguntzaile izaera izango du honako oinarri hauetan jasotako diru laguntzen kudeaketari begira; betiere, Udalaren eta aipatutako erakundearen arteko lankidetzak Hitzarmenean finkatuko diren modu eta baldintzetan.

Instrukzioa eta proposamena:

9.1. Idazkaritza Sailari dagokio, Azpeitia Berritzen SAko talde teknikoaren eta Iraurgi Lantzen SA garapen eta berrikuntza agentziaren laguntzarekin, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketarako lanak egitea.

9.2. Instrukzio fasea dirulaguntza eskaeraren aurre ebaluazioarekin hasiko da eta horretarako, dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatuko da.

9.3. Organo instruktoreak eskabideak aztertuko ditu, goian aipatutako erakunde adituen laguntzarekin, eta balorazio txostena egingo du. Txosten hori Ekonomiako Informazio

Batzordeari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza emango duen ebazpen proposamena egin dezan.

9.4. Ebazpen proposamena interesatuei jakinaraziko zaie Azpeitiko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

Ebazpen proposamenaren argitaratze eguna izango da kontuan hartuko dena epeak zenbatzeko. Argitaratze egunean bertan, Udalak abisua igorriko die posta elektronikoz eskatzaileei.

9.5. Prozeduraren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 45. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da. Horrez gain, Udalaren web orrian argitaratuko da.

10. Behin betiko ebazpena.

10.1. Ekonomiako Informazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, Alkatetzak prozedura ebatziko du ebazpen arrazoitu bidez oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta prozeduran ebazpenaren oinarriak egiaztatu beharko dira.

10.2. Deialdiaren ebazpena Udaleko webgunean argitaratuko da dirulaguntza programa atalean –tramitean dauden dirulaguntzak– atalean, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 45. artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako. Argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Ebazpenak, espedientearen aurrekarietaz gain, haren edukia eta errekurtsioa jartzeko modua eta epea ere jaso beharko ditu.

A) Onartutako eskaerei dagokienez:

- Espediente-zenbakia.
- NAN edo IFK.
- Diruz lagundutako proiektua eta aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea.
- Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa.
- Emandako laguntzaren zenbatekoa.
- 1. ordainketaren zenbatekoa.
- 2. ordainketaren zenbatekoa.
- Justifikazioak aurkezteko epea.

B) Ukatutako eskabideei dagokienez:

- Espediente-zenbakia.
- NAN edo IFK.
- Ukatzeko arrazoiak.

10.3. Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko azken epea 2025eko abenduaren 31a izango da.

10.4. Aurreko atalean adierazitako gehienezko epea amaitzerako ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, interesatuek administrazioaren isiltasunez beraien eskaerak ezetsiak izan direla uler dezakete.

11. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

11.1. Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar oinarri hauetan eta Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Arautzailean oro har ezarritako betebeharrak betetzea (2022ko urtarrilaren 26ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 16. zk.).

11.2. Oinarri Orokor hauekin batera doazen oinarri espezifikoetan jarduera-ildo bakoitzerako jasotzen diren betebeharrak espezifikoek gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hamabost eguneko epean onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

b) Laguntzaren xede den gastua emakida-ebazpenean ezarritako epean gauzatzea.

c) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke. Azpeitiko Udalari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunak betetzean eskatzen dieten informazio guztia ematea.

d) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu bada, Azpeitiko Udalari horren berri ematea, idatziz. Jakinarazpen hori gorabehera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.

e) Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzea, eta erakundearen komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan eta/edo web-orrietan emakumeen kontrako edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestea.

f) Dirulaguntzaren xede diren proiektu edo jarduketan finantzaketan Azpeitiko Udalak izan duen lankidetzari publizitate egokia ematea. Horretarako, haren erakunde-irudia sartuko da, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, eta komunikabideetan egindako agerpenetan aipamena egingo da.

12. Dirulaguntzak ordaintzea.

12.1. Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Orohar, 1, 2, 3 eta 4 lerroetan, dirulaguntza ematearen aldeko ebazpenarekin batera, lehen konturako ordainketa bat egingo da, emandako zenbateko osoaren % 40koa, eta bigarren ordainketa, gainerako % 60koa, proiektua amaitu eta emandako helburua bete dela justifikatu ondoren.

Hau da, proiektuaren justifikazioa, ebazpenaren eta 2026ko urriaren artean egiten bada (1 eranskineko 8.f.3, eta II eranskineko 5.1.2., 5.1.4.2, 5.1.5.3 eta 5.2.3.3-ren gauzatzeko gehieneko epea 2026ko urria da), % 60ko bigarren ordainketa ahalik eta lasterren egingo da.

Azken ordainketa egin aurretik, Azpeitiko Udaleko zerbitzu teknikoek beharrezko egiaztapenak egingo dituzte.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bete eta justifikatu badu, haren ordainketa osoa erabaki ahal izango da ebazpenarekin batera.

12.2. Ordainketak egitea, erakunde onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen baldintzatua egongo da, eguneratze hau instrukzio organuaren ardura izango da, betiere 6 hilabeteko indarraldia gainditu badute.

12.3. Dirulaguntza lerro bakoitzera bideratutako zenbatekora mugatuko dira laguntzak, nolana ere, gainerako lerroetan soberan geratzen diren zenbatekoak erabili ahal izango dira, horiek ebatzi ondoren, Ekonomiako Informazio Batzordeak proposatuta.

13. Dirulaguntzen justifikazioa.

13.1. Bakoitzari dagokion oinarri espezifikotik ezarritakoaz gain, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak justifikatzeko egindako jardueren justifikazio-kontua aurkeztu beharko da, honakoa jasoko duena:

a) Dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete izana egiaztatzen duen jarduketaren memoria, burututako jarduerak zehazten dituen eta lortutako emaitza zein izan den adierazten duena, eta fitxa-laburpen bat erantsiko da dirulaguntzen atarian ezarritako eranskinaren arabera.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, non adieraziko diren hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data. Dirulaguntzaren eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko izandako desbiderapenak adieraziko dira.

c) Fakturak edo merkatuko trafiko juridikoan edo administrazioan pareko frogaren balioa duten gainerako dokumentuak eta beste gastu batzuen egiaztapenak aurreko paragrafoan aipatutako zerrendakoak eta hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Diruz lagundutako jardueraren finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria barne.

e) Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitzan nahiz laguntza teknikoaren enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako kostu subentzionarioak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 18ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatuz, salbu eta aholkularitzaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez balego nahikoa enpresa edo profesional zerbitzu hori eskainiko zukeenik edo eginiko gastua dirulaguntza eskatera aurretik egin balitz.

13.2. Azpeitiko Udalak diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak egiaztatu edo ebaluatu ahalko ditu, erakunde onuradunari aurretik abisatuta, eta erakundeak erraztasunak eman beharko dizkio, behar duen lekuetara joan eta informazioa eskuratzeko.

Egiaztapen horretatik ondorioztatuko balitz diruz lagundu daitekeen gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela, edo dirulaguntza zuritzeko ezarritako baldintzak edo laguntzaren xede zena ez dela bete (osorik edo zati batean), dirulaguntza jaso duen erakundeari horren berri emango zaio, egiaztapenaren emaitzekin batera; eta hasiera emango zaio dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortzeko prozedurari edo, hala badagokio, dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko Oinarri Orokorrean 15 artikuluan aurreikusitako prozedurari.

13.3. Dirulaguntza zuritzeko ezarritako epean ez bada 13.1. Oinarri Orokorrean adierazitako dokumentazioa aurkezten, eskumena duen organoak onuradunari errekerimendua egingo dio 15 eguneko epean aurkez dezan. Epe berri hori amaitutakoan ere ez badira frogagiriak aurkeztu, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko du edo 15. Oinarri Orokorrean aurreikusitako itzultzeko prozedura hasiko da. Hori guztia, salbuespen gisa, baimendu daitezkeen balizko luzapenen kalterik gabe.

14. Dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa.

14.1. Erakunde onuradunak dirulaguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan finkatutako epeak luzatzeko, emandako dirulaguntza murrizteko, edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko, baimenduak izango dira aurreikusi gabeko gertaeren ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

14.2. Organo emaileak aldatu dezake dirulaguntza ematea onartzen duen ebazpena, aurrez erakunde interesatuarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzen aldaketak helburu zen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

15. Dirulaguntzen itzulketa.

15.1. Erakunde onuradunak ez baditu Oinarri Orokorrak hauetan, espezifikoetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, dirulaguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko zaio, eta dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoaren arabera.

15.2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira: egindako lanen eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera.

16. Araudi aplikagarria.

16.1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzei, bertan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Arautzailea eta oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003

Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamendua aplikatuko dira.

16.2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak ez dira Estatuko laguntza modura hartuko Europar Batasuneko Funtzionamendurako Ituneko 107. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren arabera; izan ere, ez dute eraginik Estatu Kideen arteko merkataritza trukeetan. Dirulaguntzen onuradunak Azpeitian diharduten erakunde pribatuak dira.

DIRULAGUNTZA LERRO BAKOITZAREN ERANSKINAK

I. ERANSKINA

Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak indartzera bideratutako diru-laguntzak arautuko dituzten oinarri bereziak eta 2025 urteari dagokion deialdia.

1. Deialdiaren xedea.

2025 aurrekontu-ekitaldiari dagokion deialdia egin da, zerbitzuen sektorea eta lehen sektoreko jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak emateko, bi arlo hauek indartzea azken helburu dutelarik.

Honakoak izango dira diruz lagunduko diren jarduerak:

a) Zerbitzuen sektorean eta lehen sektorean lehiakortasuna sustatzeko ekintzak edo jarduerak egitea.

Jarduerak diruz lagunduak izateko, zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak bultzatzea, lehiakortasuna hobetzea eta aipatutako sektoreak biziberritzea izango dute azken helburu.

a.1) Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoa.

a.2) Lokalek edo komertzioek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak behar berrietara egokitzeko eta moldatzeko (adibideak modu orientagarrian: lokalak handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakusleihoak berritzea, jardueren egoera eguneratzeko izapideak, etabar).

a.3) Azpeitiko A eranskineko eremuan kokatuak dauden lokaletan jarduera ezartzeagatik alokairuko laguntzak.

a.4) Web orrien eraketa. Establezimenduari online ikusgarritasuna emango dioten tresnak sortzea (web-orria, bloga, online salmentarako plataforma, ordainketa-pasabidea, bezeroen kudeaketa –CRM–, online ordainketen kudeaketa...).

b) Lehen sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzea.

Lehen sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzeko inbertsioak sustatu nahi dira, honako helburuak lortzeko:

— Nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumen arloko jasagarritasuna hobetzera bideratutako jarduketak bultzatzea.

— Nekazaritza-ustiapenetara nekazari gazteak sartzea bultzatzea.

- c) Azpeitian zerbitzu edo lehen sektoreko jarduera berriak jartzea eta/edo eskualdatzeak.
- d) Azpeitian zerbitzu edo lehen sektoreko jarduera berrientzat zuzendutako lokalen alokairuak.
- e) Azpeitian kokatutako zerbitzu establezimenduentzat edo lehen sektoreko jarduerentzat, merkatu azterketak egitea.
- f) Azpeitian zerbitzu edo lehen sektoreko jarduerak energia berriztagarriak ezartzeko edo efizientzia energetikorako bidean egindako inbertsio edo aholkularitza gastuak.

2. Diru-baliabideak.

2025 aurrekontu ekitaldian programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 100.000 €koa izango da eta 1.1100.471.241.00.02.2025 Zerbitzu sektorea eta lehen sektorearen sustapena eta 1.1100.471.241.00.01.2025 Ekonomia sustapena aurrekontu partidetatik finantzatzeko dira.

3. Onuradunak eta jardueren betekizunak diruz laguntzeko gastutzat jotzeko.

Onuradunak izan ahalko dira norberaren konturako langileak edo langile autonomoak, eta enpresa txikiak eta/edo elkarteak, edozein dela ere haien forma juridikoa, deialdi hau argitaratzen den egunean eratuta daudenak, lantokia edo egoitza soziala Azpeitian dutenak eta JEZn (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta daudenak:

Sekzioa 1: 3552, 41, 454, 61, 631, 64, 65, 66, 67, 68, 691.1, 691.2, 755, 831, 832, 833, 834, 841, 842, 844, 846, 849, 92, 931, 933, 94, 951, 952, 961, 965.2, 971, 972, 973 y 979.

Sekzioa 2: taldea 0, 411, 421, 731, 82 eta 83 taldea.

Zerrenda horretatik kanpo geratzen diren eskaerak aztertu egingo dira.

a) Zerbitzu sektorean eta lehen sektorean lehiakortasuna sustatzeko ekintzak edo jarduerak egiteari dagokionean.

Orokorrean:

— Jarduerak diruz lagunduak izateko, zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak bultzatzea, lehiakortasuna hobetzea eta aipatutako sektorek biziberritzea izango dituzte azken helburu.

Zehazki:

— Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoari dagokion azpillerroari dagokionean (a.1 azpillerroa), halakotzat joko dira bailarako (Azpeitia, Beizama eta Errezil) nekazaritza-ustiapenetan jatorria duten barazki, fruta, ogi, esneki, lore, landare eta arrautzen erosketak. Horrez gain, jarduera Azpeitian garatzen duten eta 10 langile baino gutxiago dituzten elikagaien merkataritza-establezimenduetan egindako lehen sektoreko produktuen erosketak.

— Behar berrietara moldatzeko edo egokitzeko establezimendu eta dendekek burutzen dituzten jarduera edo inbertsioak (a.2 azpillerroa), negozioarekin lotura izan beharko dute

eta memorian justifikatu beharko da negozioarekiko izango duen eragin edo ondorio positiboa, dekorazio osagarriak izan ezik.

Adibide modu orientagarrian, ondorengo jarduerak izango dira lagungarri: lokalak handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakusleihoak berritzea, jardueren egoera eguneratzeko izapideak, etabar).

— A eranskineko eremuan kokatuta dauden lokaletan jarduera ezartzeagatik alokairuko gastuetan laguntzea eremu hori biziberritzeko (a.3 azpillerroa).

— Premia berrietara egokitu eta moldatzeko online tresnak eta/edo web-orriak sortzeari dagokionez (a.4 azpillerroa), azken memorian justifikatu beharko da negozioan izango duten eragina edo eragin positiboa.

b) Lehen sektorea ezartzeari, erreformatzeari edo finkatzeari dagokionez.

Nekazaritza-ustiapenak bete beharko dituen betebeharrak:

— Hala ustiapenaren helbide fiskala, nola eraikin eta instalazioetan egin beharreko inbertsioak Azpeitiko udalerrian kokatuko dira.

— Nekazaritza Ustiapenen Gipuzkoako Erregistroan inskribatua egon beharko du.

Ustiapenean egingo diren nekazaritza, abelazkuntza edo basogintza jarduerak, gutxienez 0,5 Nekazaritzako Lan Unitate (NLU) hartuko dute.

Diruz lagungarri izango dira nekazaritza-ustiapenetan jarraian aipatzen diren helburuekin egingo diren inbertsio hauek:

— Nekazaritza-abelazkuntzako instalazioak jarri, eraberritu edo finkatzea.

— Nekazaritzarako makineria edo ekipak erostea.

— Ustiapenetan argindar-kostuak murrizteko energia berriztagarriak jartzea (erabiltzen den energia elektriko edo termikoa sortu eta aprobetxatzeko instalazioak, eguzki energia, eolikoa, geotermikoa, biogasa edo basogintza, nekazaritza edo abelazkuntzatik sortutako hondakinen bidezkoa, gehienez ere 10 KWko potentzia instalatuarekin).

— Argindar-sarea hobetzeko instalazioak.

— Ustiapenaren ekoizpena eraldatzen lagunduko duten inbertsioak.

Azken memorian justifikatu beharko da negozioan izango duen eragina edo eragin positiboa.

c) Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduera berriak ezartzeagatik eta/edo eskualdatzeagatik laguntza emateko, eranskin honetako 5 puntuan adierazitako epean eratuta egon beharko dute.

d) Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduera berrien lokalen alokairuak.

Dirulaguntza hau onuradunak gutxienez 12 hilabetetan izandako alokairu-gastua laguntzeko izango da, 2024ko urriaren 16tik hasita, laguntza hau emateko baldintzak denbora-tarte horretan mantentzen badira eta betiere, eranskin honetako 5 puntuan adierazitako epean eratutako jarduerak badira.

e) Zerbitzu establezimenduentzat eta lehen sektoreko jardueri dagozkien merkatu azterketak egitea.

Egindako azterketaren emaitza, amaierako memorian justifikatu beharko da.

f) Azpeitian zerbitzu edo lehen sektoreko jarduerak energia berriztagarriak ezartzeko edo efizientzia energetikorako bidean egindako inbertsio edo aholkularitza gastuak.

4. Baztertzeak.

4.1. Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoari dagokionean:

- Espreski salbuetsita daude alkoholodun edariak.

4.2. Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jardueretarako lokalen alokairuari dagokionez:

- Onuradunak ez du familia-loturarik izango errentatzailearekin odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailara arte.

4.3. Inolaz ere ez dira onartuko aurreko urteetan diruz lagundutako jarduera edota inbertsioei buruzko eskaerak.

5. Diruz lagungarri diren jarduketari ekiteko eta amaitzeko epea.

Dirulaguntza lerro guztietan sartzen diren jarduerak 2024ko urriaren 16tik aurrera hasi beharko dira, eta 2025eko urriaren 15a baino lehen amaitu beharko dira.

Enpresa berriak Jarduera Ekonomikoen Zergan eta Gizarte Segurantzari dagokion Erregimenean 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era bitartean, biak barne, eman beharko du hasierako alta.

Salbuespenez, a.3 eta d) azpilarroari dagokionez diruz lagungarri izango dira 2024ko urriaren 16tik aurrerako lokalen alokairuko gastuak.

6. Eskaerak aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Oinarri hauek argiraturako egunaren biharamunetik aurkeztu ahal izango dira eskaerak, eta horiek aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Nolanahi ere, Oinarri Orokorren 4.2 artikuluan zehaztutako dokumentuak.

b) Dagokion kasuan, aurrekontu zehaztua edo proiektua exekutatzeko izandako gastuen zerrenda.

c) Dagokion kasuan, proiektua deskribatuko duen memoria.

d) Lehen sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzeari dagokion kasuan, Nekazaritzako Eskualdeko Bulegoak emandako dokumentazioa, esanaz betetzen direla nekazaritza-ustiapenaren baldintzak.

e) Alokairurako dirulaguntzetarako, alokairuaren kontratua.

f) Instrukzioaren ardura duen organoak, aurkeztutako eskaera baloratzeko behar den beste edozein dokumentazio eskatu ahal izango du.

7. *Emateko prozedura.*

Oinarri Orokorretako 6. puntuan ezarritako prozeduraren arabera emango dira laguntzak. Kasu horretan, laguntza emateko prozedura artikulua honetan ezarritakoa izango da: azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzak arautzen dituen Legearen 22.1 artikulua.

8. *Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.*

8.a. Zerbitzu sektorean eta lehen sektorean lehiakortasuna sustatzeko ekintzak edo jarduerak egiteari dagokionean:

a.1) Lehen sektoreko bertako produktuen kontsumoari dagokionez, jarraian aipatzen diren atalak bereizten dira:

a.1.1) Irabazi asmorik gabeko herriko eragile nahiz talde desberdinek antolatutako jarduerari dagokionez (besteak beste, kultura eta kirol elkarteak, herriko ikastetxe eta antzekoek), eta beti ere beraiek antolatutako ekitaldietan lehen sektoreko produktuak kontsumitu eta mota honetako jarduerak sustatzen dituztenean, gastu lagungarrien % 80a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 8.000 € baino handiagoa izango.

a.1.2) Herriko taberna eta ostalaritzarekin loturiko beste establezimenduek, bertako lehen sektoreko produktuak erosi eta hauek herritarren eskuetara jartzen dituztenean, beti ere urtean zehar modu jarraikor batean, gastu lagungarrien % 50a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 2.000 € baino handiagoa izango.

a.2) Behar berrietara moldatzeko edo egokitzeko helburuarekin establezimendu edo dendekek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak (lokalak handitzea, negozio lerro berrien sorrera, erakusleihoak berritzea, jardueren egoera eguneratzeko izapideak, produktu berriak merkatura ateratzea, etabar) gehienez gastu lagungarrien % 30a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango.

a.3) A eranskineko eremuan kokatutako lokaletan jarduera ezartzeagatik alokairu gastuaren % 50 lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da urteko 3.000 € baino handiagoa izango lehen bi urtetan. 3 eta 5 urte bitartean alokairu gastuaren % 50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da urteko 1.500 € baino handiagoa izango.

a.4) Web orrien eraketa. Gehienez gastu lagungarrien % 50a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000 € baino handiagoa izango.

8.b. Lehen sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzeko proiektuetan gastu lagungarrien % 80a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 2.000 € baino handiagoa izango.

8.c. Azpeitiko herrian kokatutako zerbitzu sektoreko edo lehen sektoreko jarduera berriak ezartzea eta/edo jarduerari jarraipena ematen dioten eskualdaketei, gastu lagungarrien % 80a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango.

8.d. Azpeitiko herrian kokatutako zerbitzu sektoreko edo lehen sektoreko jarduera berrien lokalen alokairuei dagokionez, onuradunak gehienez alokairu kostuaren % 50eko laguntza

jaso ahal izango du (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000 € baino handiagoa izango.

8.e. Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko merkatu azterketak egiteari dagokionean. Gehienez gastu lagungarrien % 80a lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000 € baino handiagoa izango.

8.f. Azpeitian zerbitzu edo lehen sektoreko jarduerak energia berriztagarriak ezartzeko edo efizientzia energetikorako bidean egindako inbertsio edo aholkularitza gastuak lagunduko dira.

8.f.1) Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko horien inguruko azterketa, diagnostikoa, auditoria...lanak burutzea.

Egindako inbertsioaren % 50a lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000 € baino handiagoa izango.

— Diruz lagundu daitezken jarduerak:

1. Bideragarritasun-diagnostikoak eta/edo azterketak eta jasagarritasun energetikoko proiektuak egitea.

2. Energia-erakin eta instalazioen energia auditoretzak.

8.f.2) Enpresak energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko, lantokiko energia kontsumoa jaisteko helburuarekin egindako inbertsioak:

Barne-argiztapeneko instalazioetan energia-eraginkortasuna hobetzea.

Eraginkortasun energetikoa hobetzea, eraikinen inguratzaile termikoan.

Energia kudeatzeko sistemen bidez instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Berogailu, klimatizazio, aireztatze eta ur bero sanitarioaren instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Lehendik dauden kogenerazio instalazioak berritzea eta/edo instalazio berriak gauzatzea.

Kasu horietan, egindako inbertsioaren % 50a lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000 € baino handiagoa izango.

8.f.3) Autokontsumo elektrikorako edo termikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak egitea. Egindako inbertsioa 60.000 €tik gorakoa bada 10.000 €ko laguntza emango da. 60.000 €tik beherako inbertsioetan, egindako inbertsioaren % 50a lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango.

Honako hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen inbertsioetat:

— Energia berriztagarrien eta efizientzia energetikorako instalazio berriak: sare elektrikotik bananduak edo isolatutako instalazio berriak; fotovoltaiakoak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak izan daitezke. Hauetan instalatutako potentzia izendatua ezin da 250 kW baino handiagoa izan.

— Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak:

Sare elektrikora konektatutako instalazio fotovoltaiako berriak, autokontsumoa xedearekin, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak, baldin eta sortzeko instalatutako potentzia izendatuak 1 MW gainditzen ez badu.

— Sistema termiko berriztagarrien instalazio berriak (eguzki-energia termikoa, biomasa, geotermia, hidrotermia, aerotermia,...) autokontsumokoak badira.

— Dirulaguntzaren xede diren jardueren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

Laguntzak Oinarri Orokorren 12. artikuluan ezarritako moduan ordainduko dira, eta dirulaguntza osorik ordaintzeko egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzak lerro honetara zuzendutako zenbatekora mugatuak egongo dira, gainerako lerroetan sobera dauden zenbatekoak erabili ahal izateko kalterik gabe, behin lerro horiek ebatzi ondoren.

Eranskin honi dagozkion lerro desberdinetako dirulaguntzak elkarren artean bateragarriak badira ere, eskatzaile berak ezingo du 10.000 € baino gehiagoko laguntza jaso, guztira.

Kasu guztietan, diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da aurkeztutako fakturen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendu beharko delarik.

9. Eskaerak balioesteko irizpideak.

Dirulaguntza lerro honen bidez lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Bai instalazioak erosi/egokitzeko, bai Hw eta/edo Sw ekipamenduak erosteko egindako inbertsio/gastu/kontsumoaren tamaina.

— Lokalaren alokairuaren errenta.

10. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak ematea arautuko duen Ordenantzaren 12. artikuluan jasoak datozen gain, entitate onuradunak Oinarri Orokorren 11 puntuan jasotako betebeharrak bete beharko ditu.

11. Egindako jarduera egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aurkeztu beharreko justifikazio-dokumentazioa Oinarri Orokorren 13 puntuan ezarritakoa izango da.

12. Proiektuak justifikatzeko datak.

I. eranskin honetan jasotako laguntzak justifikatzeko azken eguna, a.3) eta d) azpillerroei dagozkienak izan ezik –alokairua–, 2025eko abenduaren 15a izango da. Alokairuagatiko laguntzen kasuan, justifikatzeko azken eguna 2026ko urriaren 15a izango da eta justifikazioa ezin izango da kontratuaren azken ordainketatik hilabete bat baino gehiago atzeratu.

13. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Lerro honetan sartzen diren diruz lagungarriak diren jarduera guztiak elkarren artean bateragarriak izango dira.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak dira beste edozein administrazio publikok edo erakunde pribatuk eman edo ezar ditzakeen laguntzekin, baldin eta jasotako zenbateko osoak ez badu gainditzen egindako gastu osoa.

II. ERANSKINA

Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean sustatzen laguntzeko dirulaguntza lerroen 2025 urterako oinarri espezifikoak eta deialdia.

1. Deialdiaren xedea.

2025 aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdia egin da, Azpeitiko herrian industria proiektu estrategiko eta berritzaileak gauzatuz, bai inbertsio proiektuak eta jarduera berriak ezarriz, enplegua sortu, genero berdintasunerako neurriak hartu, ingurumen jasangarritasuna bultzatu, eraikuntza sektoreko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna bultzatzeko dirulaguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako ataletan sartuko diren proiektuak izango dira:

1. Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak.

1.1. Industria proiektu estrategiko eta berritzaileak planifikatu, exekutatu eta garatzea, hau da Berrikuntza Planak egitea, exekutatzea eta garatzea, bai eta digitalizazioa bultzatzeko proiektuetara bideratutakoak ere. 50 langile edo gutxiagoko enpresak.

1.2. Instalazioak egokitu edo erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea. 50 langile edo gutxiagoko enpresak.

1.3. Industria-jarduera berriak modu finkoan Azpeitiko udalerrian ezartzea eta gutxienez 20 langile izatea enpresak.

1.4. Genero-berdintasunaren aldeko neurriak ezartzea, 50 langile baino gutxiagoko enpresentzat Berdintasun Planak edo LGTBI+ Planak eginez, bai eta enpresa txiki eta ertainentzat edo enpresa handientzat instalazioak egokitzeko inbertsio zehatzak eginez ere.

1.5. Industria sektoreko ETEEn eta Enpresa handientzat, energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko ekintzak.

2. Eraikuntza sektoreko proiektuak.

2.1. 50 langile baino gutxiagoko eraikuntza sektoreko enpresetan digitalizazioa bultzatzea: enpresari online ikusgarritasuna ematea, webguneak sortzea, plataformak,...

2.2. 50 langile baino gutxiagoko eraikuntza sektoreko enpresetan eraikuntza sektoreko inbertsioak bultzatzeko lerroa: Instalazioak egokitu edo erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea.

2.3. Eraikuntza sektorean energia berriztagarri eta efizientzia energetikora bideratutako ekintzak, 50 langile baino gutxiago dituzten sektoreko enpresak.

3. Eskualdatzeak.

Lerro honen helburua da beren enpresa jarduera eskualdatu nahi duten tokiko enpresei dirulaguntza ematea, jardueraren jarraipena eta udalerriko enpresa ehuna babestea erraztuz.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke beren enpresa jarduera eskualdatzeko prozesuan dauden eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten udalerriko enpresak: 2 eta 50 langile arteko industria, eraikuntza eta zerbitzu aurreratuetako jardueretan lanean diharduten enpresak.

Ez ohiko kasuetan eta beti ere proiektua interes orokorrekoa dela ulertzen bada, lerro ezberdinetan ezarritako langileen gehieneko muga hori kontuan ez hartzea posible izango da.

2. *Diru-baliabideak.*

2025 aurrekontu ekitaldian pro-grama honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 160.000 €koa izango da eta Ekonomia sustapena 1.1100.471.241.00.01.2025 aurrekontu partidatik finantzatuko da. Hori guztia Azpeitiko herri ekonomia sustatzeko dirulaguntzen Oinarri Orokorretako zortzigarren atalean adierazitakoaren kalterik gabe.

3. *Onuradunak.*

Dirulaguntza hauen onuradun izan ahalko dira deialdi hau argitaratzen den data baino lehenago sortuak dauden enpresak, edonolako izaera juridikoarekin, eta bere lantokia edo helbide soziala Azpeitiko herrian dutenak. Enpresa onuradunen tamaina dirulaguntzen lerro bakoitzaren arabera izango da; beti ere gutxienez bi langile izan behar dituela kontuan hartuz (2 eta 3 lerroan ezik).

Baldintza orokorrez gain, enpresa edo entitate horrek legez eratua egon beharko du, dagokion erregistroan behar bezala inskribatua, Jarduera. Ekonomikoetako Zergan alta emana eta Gizarte Segurantzari inskribatua, balegokio, eskariak aurkezteko unean.

4. *Baztertzeak.*

Dirulaguntza lerro hauetatik baztertuak geratuko dira:

- Inola ere ez dira onartuko aurreko urteetan diruz lagundutako proiektu edota inbertsioei buruzko eskaerak.
- Udalaren beste dirulaguntza lerroren batean espezifikoki sar daitezkeen proiektuak.

5. *Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuen eskakizunak. Diruz lagun daitezkeen jarduerak hasteko eta amaitzeko epea.*

Proiektuek honako irizpide hauek bete behar dituzte:

5.1. Industria proiektu estrategiko eta/edo berritzaileak.

5.1.1. Interes publikoa duten industria proiektu estrategiko eta/edo berritzaileak planifikatu, exekutatu eta garatzea, bai eta digitalizazioa bultzatzera bideratutakoak, jarduera gisa helburu hauek dituztenak:

— Berrikuntza Planak egitea

— Alderdi hauetakoren batekin lotutako Proiektu berritzaileak planifikatu, exekutatu edo garatzea:

Ekoizpen-prozesuen optimizazioa.

Bezzeroarentzako hornidura- eta/edo zerbitzu-katea hobetzea.

Pertsonen kudeaketa hobetzea.

Merkatuko kuota handitzea.

Merkatu berrietarako sarbidea.

Soluzioak produktu-materian.

Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzea.

— Enpleguak sortzen dituzten edo enpleguari eusten dioten edo enpleguak sortzeko potentzial handia duten proiektuak egitea.

— Enpresen digitalizazioa bultzatzen dituzten proiektuak egitea.

— Ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak egitea.

— Eskualdeko ekonomia-ehuna dibertsifikatzeko balio duten proiektuak egitea.

— RIS3 Euskadirekin 2030 bat datozen proiektuak egitea.

— Enpresaren tamainaren betekizuna: 50 langile edo gutxiago.

— Dirulaguntzaren xede diren jarduketaren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

5.1.2. Baldintza hauek betetzen dituzten inbertsioak egitea enpresaren tamaina 15 eta 50 langile artekoa denean.

— Instalazioak egokitu edo erosteko, eta/edo ekipamendu tekniko eta teknologikoa erosteko, gutxienez 60.000 €ko inbertsioa egitea.

— Diruz lagundutako jarduketaren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

Inbertsioak egiten dituen enpresaren tamaina 15 langiletik beherakoa denean 60.000 €tik beherako inbertsioak onartuko dira.

5.1.3. Azpeitiko udalerrian industria-jarduera berriak modu finkoan ezartzea, honako irizpide hauek betez:

— Enpresak, jarduera berri gisa gutxienez 20 langile izan behar ditu.

— Industria-jarduera berriak gutxienez 500.000 € ko inbertsioa egin behar du.

— Industria-jarduera berriak enpleguari eutsi beharko dio eta/edo enplegua sortu beharko du 12 hilabetez gutxienez.

5.1.2, 5.1.3 eta 5.2.2 puntuetan, laguntza jasotzeko moduko inbertsioetat joko da enpresaren aktiboari gehitzen zaizkion eta baldintza hauek betetzen dituzten aktibo finkoak erostea:

Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuan jasotako Kontabilitate Plan Orokorrak xede horretarako ezarritako definizioaren arabera, honako kategoria hauetako bat izatea, honako epigrafe hauekin:

203. Jabetza Industrialak eta Patenteak; 206. Aplikazio informatikoak; 210. Lurrak eta ondasun naturalak; 211. Eraikuntzak; 212. Instalazio teknikoak; 213. Makineria; 214. Tresneria; 215. Beste instalazio batzuk; 217. Informazio-prozesuetarako ekipamenduak.

Nolanahi ere, aktiboek lotura zuzena izan behar dute enpresaren xede soziala den jarduerarekin.

— Diruz lagundutako jarduketaren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

5.1.4. Genero-berdintasuna bultzatuko duten Berdintasun Planak eta inbertsioak egitea, bai eta LGTBI+ Planak.

5.1.4.1. Enpresak bere Berdintasun Plana egin beharko du. Plan horrek, gutxienez, honako puntu hauek izan beharko ditu: hautaketa-politiken lorpena, lanbide-karreraren sustapena eta garapena, prestakuntza, ordainsaria, laneko osasuna, komunikazioa eta bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzearen arloko politikak, eta sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako genero-indarkeriaren balizko egoeren azterketa. Proposatutako planak, gutxienez, urte anitzekoa izan beharko du, eta adierazleak izan beharko ditu, emakumeen eta gizonen arteko aldeak murrizteko esperotako emaitzak neurtzeko, esleitutako pertsonak, aurrekontua eta jarraipen- eta ebaluazio-sistema barne hartzeko. Hala ez bada, behar bezala justifikatu beharko da.

Ilde espezifiko honetarako, Berdintasun Plana 2025eko martxoaren 7rako amaituta egon beharko da, eta Berdintasun Plana bera justifikatuko da, bai eta aipatutako Berdintasun Plana egiteko azpikontratutako erakundearen faktura ere.

— Enpresaren tamainaren betekizuna: 50 langile edo gutxiago (enpresa eskatzailea enpresa-talde batekoa bada, taldeko langileen guztizkoak ezin izango dira 100 langile baino gehiago izan).

5.1.4.2. Emakumeentzako instalazioak egokitzeko inbertsioak egitea: aldagelak, bainugelak dituzten aldagelak,...

— Enpresaren tamainaren betekizuna: ETE (250 langile baino gutxiago) edo Enpresa Handia.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

Udalak bisitak egingo ditu dirulaguntzaren azpillerro honen xede diren instalazioak ikusteko.

5.1.5. Industria sektoreko ETEEan, 250 baino langile gutxiagoko enpresak edo Enpresa Handietan, energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko ekintzak (lan lerroetan zehaztasun bereziak).

5.1.5.1. Enpresak energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko horien inguruko azterketa, diagnostikoa, auditoria... lanak burutzea.

— Diruz lagundu daitezken jarduerak:

1. Bideragarritasun-diagnostikoak eta/edo azterketak eta jasagarritasun energetikoko proiektuak egitea.
2. Energia-erakin eta -instalazioen energia-auditoretzak.

— Enpresaren tamainaren betekizuna: ETEEan 250 langile baino gutxiago izatea.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

5.1.5.2. Enpresak energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko, lantokiko energia kontsumoa jaisteko helburuarekin egindako inbertsioak.

Barne-argiztapeneko instalazioetan energia-eraginkortasuna hobetzea.

Eraginkortasun energetikoa hobetzea eraikinen inguratzaille termikoan.

Energia kudeatzeko sistemen bidez instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Berogailu, klimatizazio, aireztatze eta ur bero sanitarioaren instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Lehendik dauden kogenerazio instalazioak berritzea eta/edo instalazio berriak gauzatzea.

— Enpresaren tamainaren betekizuna: ETEEan 250 langile baino gutxiago izatea.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

5.1.5.3. Autokontsumo elektrikorako eta termikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak egitea.

Honako hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen inbertsioetat:

* Energia berriztagarrien eta efizientzia energetikorako instalazio berriak: sare elektrikotik bananduak edo isolatutako instalazio berriak; fotovoltaikoak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak izan daitezke. Hauetan instalatutako potentzia izendatua ezin da 250 kW baino handiagoa izan.

* Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak:

—Sare elektrikora konektatutako instalazio fotovoltaiko berriak, autokontsumoa xedearekin, indarrean dagoen araudiaren arabera.

—Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak, baldin eta sortzeko instalatutako potentzia izendatuak 1 MW gainditzen ez badu.

* Sistema termiko berriztagarrien instalazio berriak (eguzki-energia termikoa, biomasa, geotermia, hidrotermia, aerotermia,...) autokontsumokoak badira.

- * Enpresaren tamainaren betekizuna: ETE (250 langile baino gutxiago) edo Enpresa Handia.
- * Inbertsioetarako ez da kopuru minimorik ezartzen.
- * Dirulaguntzaren xede diren jardueren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

5.2. Eraikuntza sektoreko proiektuak.

Onuradunak izan ahalko dira norberaren konturako langileak edo langile autonomoak, eta enpresa txikiak eta/edo elkarteak, edozein dela ere haien forma juridikoa, deialdi hau argitaratzen den egunean eratuta daudenak, lantokia edo egoitza soziala Azpeitian dutenak eta JEZn (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta daudenak:

314.1, 463, 463.1, 463.2, 463.3, 501, 501.1, 501.2, 501.3, 502, 502.1, 502.2, 502.3, 502.4, 502.5, 502.6, 503, 503.1, 503.2, 503.3, 503.4, 504, 504.1, 504.2, 504.3, 504.4, 504.5, 504.6, 504.7, 504.8, 505, 505.1, 505.2, 505.3, 505.4, 505.5, 505.6, 505.7, 506, 506.0, 507.

Zerrenda horretatik kanpo geratzen diren eskaerak aztertu egingo dira.

5.2.1. Eraikuntza sektorearen digitalizazioa bultzatuko duten ekintzak lagunduko dira.

Enpresari Hardware zein Software mailan online ikusgarritasuna ematen dioten tresnak sortzea (web-orria, bloga, online saltzeko plataforma, ordainketa-pasabidea,...).

— Enpresaren tamainaren betekizuna: 50 langile baino gutxiago izatea.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

5.2.2. Eraikuntza sektoreko enpresetan inbertsioak egitea instalazioak egokitu (lokalak handitzea, negozio lerro berrien sorrera, erakusleioak berritzea, produktu berriak merkatura ateratzea, etabar) edo erosteko, eta/edo ekipamendu tekniko eta teknologikoak erosteko.

— Erakunde juridiko onuradunaren tamainaren baldintza: 50 langile baino gutxiago izatea.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

5.2.3. Eraikuntza sektoreko 50 baino langile baino gutxiagoko enpresak, energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko ekintzak.

5.2.3.1. Enpresak energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko horien inguruko azterketa, diagnostikoa, auditoria... lanak burutzea.

1. Bideragarritasun-diagnostikoak eta/edo azterketak eta jasagarritasun energetikoko proiektuak egitea.

2. Energia-eraikin eta instalazioen energia-auditoretzak.

— Erakunde juridiko onuradunaren tamainaren baldintza: 50 langile baino gutxiago izatea.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

5.2.3.2. Enpresak energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko, lantokiko energia kontsumoa jaisteko helburuarekin egindako inbertsioak.

— Barne-argiztapeneko instalazioetan energia-eraginkortasuna hobetzea.

— Eraginkortasun energetikoa hobetzea eraikinen inguratzaile termikoan.

— Energia kudeatzeko sistemen bidez instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

— Berogailu, klimatizazio, aireztatze eta ur bero sanitarioaren instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

— Lehendik dauden kogenerazio instalazioak berritzea eta/edo instalazio berriak gauzatzea.

— Erakunde juridiko onuradunaren tamainaren baldintza: 50 langile baino gutxiago izatea.

— Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

5.2.3.3. Autokontsumo elektrikorako eta termikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak egitea.

Honako hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen inbertsiotzat:

* Energia berriztagarrien eta efizientzia energetikorako instalazio berriak: sare elektrikitik bananduak edo isolatutako instalazio berriak; fotovoltaiakoak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak izan daitezke. Hauetan instalatutako potentzia izendatua ezin da 250 kW baino handiagoa izan.

* Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak:

—Sare elektrikora konektatutako instalazio fotovoltaiako berriak, autokontsumoa xedearekin, indarrean dagoen araudiaren arabera.

—Sare elektrikora konektatutako instalazio berriak, eolikoak edo minizentral hidroelektrikoak, baldin eta sortzeko instalatutako potentzia izendatuak 1 MW gainditzen ez badu.

* Erakunde juridiko onuradunaren tamainaren baldintza: 50 langile baino gutxiago izatea.

* Dirulaguntza honen xede den jardueraren datak: 2024ko urriaren 16tik 2026ko urriaren 15era.

5.3. Industria, Eraikuntza eta Zerbitzu aurreratutako sektoreko Eskualdatzerako diru laguntzak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu ahal izango dira enpresa-eskualdatzearen prozesuarekin lotutako gastu hauek:

5.3.1. Lege- eta zerga-aholkularitza:

Aholkularitza juridikoko eta fiskaleko zerbitzuen ordainsariak.

5.3.2. Familia-protokoloak:

Familia-protokoloak egiteko eta bitartekotza egiteko kostuak.

5.3.3. Enpresa-aholkularitza:

Bideragarritasun, ebaluazio eta aholkularitza estrategikoko azterlanak, baldin eta jarduera eskualdatzearekin zerikusia badute.

— Dirulaguntzaren xede diren jardueren datak: 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era.

6. *Eskaerak aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskabideak oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta horiek aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

—Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskaerak deialdi honi atxikitako eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, eta Oinarri Orokorren 4.2 artikuluan jasotako dokumentazioa erantsiko zaio.

Horrez gain, dirulaguntza lerro honetarako eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Diruz lagundu daitezkeen proiektuak:

a.1) 5.1.1 motako proiektuetarako, industria-proiektuaren edo berrikuntza planaren deskripzio-memoria eta aurrekontu xehatua edo proiektua egikaritzean sortutako gastuen zerrenda.

a.2) 5.1.2., 5.1.3 eta 5.2.2 motako proiektuetarako, bestalde, egin beharreko inbertsioen memoria xehatua, plan industrial, plan ekonomiko-finantzarioa eta laneko plana eta horiek gauzatzeko epeak jasoko dituen.

a.3) Genero-berdintasuna bultzatzeko kasuetan:

a.3.1) 5.1.4.1 kasurako, Berdintasun-Plana egitea xede duen azpikontrataturako erakundearen oferta aurkeztu beharko da gutxienez bi alderdiak sinatuta. Proiektu mota hau justifikatzeko, Berdintasun Plana bera eta xede horretarako azpikontrataturako erakundearen faktura aurkeztu beharko dira.

a.3.2) 5.1.4.2 kasurako, egin beharreko inbertsioei buruzko memoria xehatua aurkeztu beharko da eskabidean.

a.4) 5.1.5 eta 5.2.3 barne dauden kasuetarako, dagokion Diagnostikoa, Auditoria edo energia berriztagarrien edo efizientzia energetikoaren kasuan azterlanaren edo horien ezarpenerako instalazio berriaren proiektuaren memoria deskriptibo tekniko-ekonomikoa.

a.5) 5.2.1 kasuan digitalizazioari lotutako egindako proiektua deskribatuko duen memoria eta bere aurrekontua.

b) ITA: Altan dauden langileen txostena.

c) Dirulaguntza emateko irizpideen arabera kontuan hartuko den beste edozein agiri.

7. *Emateko prozedura.*

Oinarri Orokorren 6. puntuan ezarritako prozeduraren arabera emango dira laguntzak. Kasu horretan, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 22.1 artikulua jasotako emateko prozeduraren arabera emango da.

8. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Azpeitiko Udalak laguntza bereziak eman ahal izango ditu diruz lagun daitezkeen proiektuen tipologiaren arabera:

8.1. Industria proiektu estrategiko eta berritzaileei dagokionez:

8.1.1. Orokorrean, enpresa-proiektu estrategikoei/berritzaileei edota herriarentzat interesa dutenei, gehienez 8.000 €ko laguntzarekin, proiektuko eta enpresako (5.1.1 puntuan deskribatutako proiektuak).

Onuraduna azken 2 ekitaldietan (2023 eta 2024) lerro honetako laguntzaren onuradun izan bada, egokitzen zaion laguntzaren zenbatekoa honela murriztuko da:

—Ekitaldi horietan behin izan bada onuradun, laguntza % 25ean murriztuko da.

—Ekitaldi horietan bi aldiz edo gehiagotan izan bada onuradun, laguntza % 40ean murriztuko da.

8.1.2. Instalazioak egokitu edo erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea. 15 eta 50 langile bitarteko enpresak (5.1.2 puntuan deskribatutako proiektuak) egindako inbertsioa 60.000€ baino gehiagokoa denean, 10.000 €ko laguntza emango da.

15 langile baino gutxiagoko enpresen kasuan, egindako inbertsioa 60.000 € baino gehiagokoa bada 10.000 €ko laguntza emango da. Inbertsioa 60.000 € baino gutxiagokoa bada, egindako inbertsioaren %30 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000€ baino handiagoa izango.

8.1.3. Industria jarduera berrien kasuan (5.1.3. puntuan deskribatutako jarduera berrientzat), gehienez 50.000 €ko laguntza emango da.

8.1.4. Genero-berdintasuna sustatzen duten proiektuetarako (5.1.4 puntuan deskribatutako tipologiako proiektuak):

8.1.4.1. Berdintasun Plan bakoitzeko egindako inbertsioaren %50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000€ baino handiagoa izango (5.1.4.1 tipologiako proiektuak).

8.1.4.2. Egindako inbertsioaren %60 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000€ baino handiagoa izango (5.1.4.2 tipologiako proiektuak).

8.1.5. Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa bultzatzeko azpillerroetan:

8.1.5.1. Diagnostiko, azterketa, auditoria... kasuetan, egindako inbertsioaren %50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000€ baino handiagoa izango (5.1.5.1 tipologiako proiektuak).

8.1.5.2. Kontsumoa jaisteko egindako ekintzetan, egindako inbertsioaren %50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000€ baino handiagoa izango (5.1.5.2 tipologiako proiektuak).

8.1.5.3. Autokontsumo elektrikorako eta termikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioa 60.000 €tik gorakoa bada, 10.000 €ko laguntza emango da; 60.000 €tik beherako inbertsioetan egindako inbertsioaren % 50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango (5.1.5.3 tipologiako proiektuak).

8.2. Eraikuntza sektoreko proiektuak.

8.2.1. Digitalizazioa bultzatzeko ekintzetan, egindako inbertsioaren %50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 2.000€ baino handiagoa izango (5.2.1 tipologiako proiektuak).

8.2.2. Inbertsioen kasuan, egindako inbertsioa 60.000 €tik gorakoa bada 10.000 €ko laguntza emango da; 60.000 €tik beherako inbertsioetan egindako inbertsioaren % 30 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango (5.2.2 tipologiako proiektuak).

8.2.3.1. Diagnostiko, azterketa, auditoria... kasuetan, egindako inbertsioaren %50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000€ baino handiagoa izango (5.2.3.1 tipologiako proiektuak).

8.2.3.2. Kontsumoa jaisteko egindako ekintzetan, egindako inbertsioaren %50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000€ baino handiagoa izango (5.2.3.2 tipologiako proiektuak).

8.2.3.3. Autokontsumo elektrikorako eta termikorako energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioa 60.000 eurotik gorakoa bada 10.000 €ko laguntza emango da; 60.000 eurotik beherako inbertsioetan egindako inbertsioaren % 50 lagunduko da, eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango (5.2.3.3 tipologiako proiektuak).

8.3. Industria sektoreko jardueren eskualdaketak.

Azpeitiko herrian kokatutako industria sektoreko jardueri jarraipena ematen dioten eskualdaketak, gastu hautagarrien % 80 lagunduko da (BEZ gabe), eta lagunduko den zenbatekoa ez da 5.000 € baino handiagoa izango (5.3 tipologia).

—Lan lerro desberdinetako bateragarritasuna.

5.1. Lan lerroko Enpresa eskatzaileek 5.1.1, 5.1.2, 5.1.3 y 5.1.5 lineen arteko proiektu-tipologia jakin bat baino ezin izango dute eskatu; hau da, eskaera egiteko orduan, proiektu bakarra eskatu beharko dute beren artean. Hala ere, aurreko lerroak bateragarriak izango dira 5.1.4 lerroarekin.

Hau da, azpillerroetan diruz lagun daitezkeen jarduerak bateraezinak dira, 5.1.4 lerroa izan ezik, gainerako lerroetatik modu independentean eskatu ahal izango baita.

5.2. Lan lerroari dagozkion azpillerro desberdinetako dirulaguntzak elkarren artean bateragarriak badira ere, eskatzaile berak ezingo du 10.000 € baino gehiagoko laguntza jaso, guztira.

Dirulaguntzen ordainketa Oinarri Orokorretako 12. artikuluan adierazitako moduan egingo da, aurkeztutako eskaerak aztertu eta dirulaguntzaren zenbatekoak finkatu ondoren. Nolanahi ere, ondorengo ataletan adierazitako moduan aurretik justifikatzea beharko da.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren ordainketa egiteko nahitaezko baldintza izango da justifikazio-agiriak aurkeztea.

Dirulaguntzak lerro honetara zuzendutako zenbatekora mugatuak egongo dira, gainerako lerroetan sobera dauden zenbatekoak erabili ahal izateko kalterik gabe, behin lerro horiek ebatzi ondoren.

9. Eskaerak balioesteko irizpideak.

Lerro honen bidez eman daitekeen dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ondoren xehatuko diren irizpide hauek aplikatuko dira:

—5.1. motako proiektuetarako:

Horrelako proiektuetarako balorazio positiboa izango du Iraurgi Lantzen S.A.-ek eskura ipiniko duen Berrikuntzaren Diagnostikoa egitea eta aurkeztea proiektuaren memoriarekin batera.

- a) Aurkeztutako proiektuaren berrikuntza-maila (30 puntu) gai hauetako baten arabera.
 - 1. Produkzio-prozesu batzuk eta/edo zerbitzuak emateko metodoak birdefinitu eta hobetzea.
 - 2. Produktu edo prozesu berriak sortzeko proiektuak.
 - 3. Produktu, ondasun eta/edo zerbitzu berriak merkatuan sartzea.
 - 4. Logistikarekin eta/edo hornidura-katearekin/hornitzaileekin lotutako alderdiak hobetzea.
 - 5. Marketin/salmenten estrategia globala diseinatzea eta hedatzea.
 - 6. Pertsonen kudeaketaren bilakaera.
 - 7. Negozio-eredu berriak lantzea.
 - 8. Berrikuntza Plana egiteko proiektua.
- b) Udalerriak lehenetsitako trantsizioak lerrokatzea: teknologiko-digitala eta energetiko-klimatikoa (15 puntu).
- c) Gehiengo batean Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana / Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (RIS3) dokumentuan jasotako eta Azpeitiko udalak ezarritako lehentasunen artean dauden Jarduera-eremu estrategikoekin lerrokatzea. Hauek dira Jarduera-eremu horiek (15 puntu): Fabrikazio Gehigarria, Robotika Malgu eta Kolaboratiboa, Zibersegurtasuna, Makina Adimendun eta Konektatuak, Material Aurreratuak, Sare Elektriko Digitalak eta Gailu Medikoak eta Osasun Digitala.
- d) Barne-langileen eta inbertsioen kostuan oinarritutako aurrekontua baino aurkezten ez duten proiektuek gehienez 5 puntu jasoko dituzte. Hala ere, kanpoko langileekin azpikontratatzeari barne hartzen duen aurrekontua aurkezten duten proiektuek (aurkeztutako aurrekontu osoaren % 50 gutxienez) 20 puntuko balorazioa izango dute.

e) Aurreko fase edo proiektu batean definitutako ekintza- plan baten ondorio diren proiektuak; beraz, deialdi honetan diruz lagunduko den proiektuaren aurretik zegoen proiektuaren ibilbide-orria edo ekintza-plana aurkeztu beharko da (20 puntu).

—5.1.2 eta 5.1.3 proiektu tipologietarako:

a) Instalazioak erosten/egokitzen nahiz makineria teknikoak/ teknologikoak erosten egindako inbertsioaren zenbatekoa (50 puntu).

b) Egindako inbertsioaren eta enpresako plantilla-kopuruaren arteko ratioa (50 puntu).

—5.1.4.1. proiektu tipologietarako:

a) Egindako Berdintasun Planaren kalitatea (100 puntu).

—5.1.4.2. proiektu tipologietarako:

a) Instalazioak egokitzeko egindako inbertsioaren bolumena (50 puntu).

b) Egindako inbertsioaren eta enpresako plantilla-kopuruaren arteko ratioa (50 puntu).

Nolanahi ere, lehentasuna emango zaie onuradunak lehen aldiz eskaera egin duen proiektuei.

Dirulaguntza bakoitzaren irizpideak baloratzeko eta zenbatekoak behar bezala mailakatzeko, instrukzioa daraman organoak Azpeitia Berritzen SA eta Iraurgi Lantzen S.A.ren laguntza izango du.

10. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 12. artikuluan jasoak, bai eta Oinarri Orokorren 11. puntuan jasotako betebeharrak gain, enpresa edo entitate onuradunak honakoak bete beharko ditu:

— Dirulaguntza hori ematerakoan zehaztu zen helbururako erabiltzea dirulaguntza.

— Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalean.

— Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.

— Diruz lagundutako proiektuen herri-interesa eta izaera estrategikoa kontuan izanik, eta Udal honek dituen iragartze eta gardentasun-helburuak betetzeko, Udal honek onuradunari eskatu ahal izango dio parte har dezala egoki iritzitako ekitaldi instituzionaletan. Horrelakoetan, aurkezpena egiteko data eta lekua Udalaren eta laguntza jaso duen enpresaren artean adostuko da.

11. Egindako jarduera egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Diruz lagundutako xedea bete dela justifikatzeko eta diruz lagundutako jarduerak benetan egin direla egiaztatzeko, onuradunak Oinarri Orokorren 13. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkezteaz gain, diruz lagunduriko jarduerari dagozkion gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko dituzte.

- a) Laguntza ematean jarritako baldintzak bete direla azaltzen duen memoria, zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren zehaztuta.
- b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data identifikatuta. Dirulaguntzaren eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko izandako desbiderapenak ere adieraziko dira.
- c) Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko froga balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak, eta, behar izanez gero, ordainketaren egiaztagiriak.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko lortu diren beste diru-sarrera edo laguntzak, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria barne.
- e) Azpikontratazio gastuak eta langileen gastuak egiaztatze faktura, ordainagiri zein TC2.

Proiektu/inbertsio bat justifikatzerakoan, hainbat finantzaketa-modu onartuko dira: renting kontratuak, epeko ordainketak...

Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagozkien fakturak lerro bakoitzari dagokion jarduketa-daten artean egon beharko dute.

12. Proiektuen justifikaziorako datak.

Justifikaziorako dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da, azpillerro bakoitzean zehaztutako diruz laguntzeko jarduketa-datak amaitzen direnetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, II. eranskin honetan onartutako laguntzak justifikatzeko azken eguna 2026ko urriaren 15a izango da.

13. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Lerro honetan sartzen diren diruz lagungarriak diren jarduera guztiak elkarren artean bateragarriak izango dira, oinarri hauen 8 artikuluen arabera.

Laguntza hauek, beste Administrazio publikok eman ditzazketeenekin bateragarriak izango dira. Beti ere lagundu nahi den jardueraren zenbatekoaren kostua gainditzen ez duten bitartean.

III ERANSKINA

Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueratan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri bereziak eta 2025 urteari dagokion deialdia.

1. Deialdiaren xedea.

2025 aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdia egiten da ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueratan Azpeitian enpleguaren sorrera laguntzera bideratutako dirulaguntzei dagokiona.

Araudi honen ondorioetarako, lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiaketa komunitariorako kooperatibak eta lan-sozietateak soilik joko dira gizarte ekonomiako enpresatzat.

2. Diru-baliabideak.

2025 aurrekontu ekitaldian programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 65.000 €koa izango da eta Ekonomia sustapenari dagokion 1.1100.471.241.00.01.2025 aurrekontuko partidaren kontura finantzatuko da.

3. Eskatzaileak eta baldintzak.

Enpresa berriak Jarduera Ekonomikoen Zergan eta Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15era bitartean, biak barne, eman beharko du hasierako alta.

Edonola ere, enpresa horrek bere kokapena eta bere zerga-egoitza Azpeitian izan beharko du gutxienez urte beteko epean.

Enpresa edo jarduerak berria izan beharko du edo autonomo bezala alta berri bat izan beharko du (gehienez 4 alta enpresa edo proiektu bakoitzeko).

2024ko urriaren 16 eta 2025eko urriaren 15a artean enpresa berri bat sortu edo autonomo bezala alta berri bat ematen duen edozein pertsona fisiko, adinez nagusia, izan ahalko da programa honen onuradun.

Enpresa berria sortu duen edo sortuko duen pertsona ekintzaileak honako baldintzak bete beharko ditu:

— Azpeitian erroldatuta egotea 2025eko deialdia argitaratu aurreko azken hiru urteetan, eta egoera horretan egon beharko du diruz lagundutako aldia amaitu arte.

4. Baztertzeak.

Laguntza hauetatik kanpo geratuko dira honako egoeretakoren batean sartuta leudekeen enpresak:

- Diruz laguntzeko aurkeztu den enpresa sortu aurreko bederatzi hilabeteetan matrikulatu direnak Jarduera Ekonomikoen Zergan jarduera berean.
- Taberna edo antzeko ostalaritza jarduerak baztertzen ez diren arren, programa honen markoan bereziki aztertuko dira. Eskaerak banan-banan aztertu eta kasuz kasu dirulaguntzarik dagokion aztertuko da eta kopurua erabakiko da.
- Inolaz ere ez dira onartuko aurreko urteetan diruz lagundutako proiektu edota inbertsioei buruzko eskaerak.

5. Diruz lagungarri diren jarduketei ekiteko eta amaitzeko epea.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak, 2024ko urriaren 16tik aurrera hasitakoak izan beharko dira eta 2025eko urriaren 15ean amaitu beharko dira.

6. Eskaerak aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Oinarri hauek argiraturako egunaren biharamunetik aurkeztu ahal izango dira eskariak.

Eskariak aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

—Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Oinarri Orokorren 4.2 artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, dirulaguntza programa honetarako, eskatzaileak honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

a) Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txosten zehatza.

Oinarri arautzaile hauei atxikitako “Jarduera berrien azalpen txostena”.

b) Dirulaguntza emateko irizpideak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

c) Azken bederatzi hilabeteetan ez dela alta emanda egon laguntzaren xede den jardueran, ez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, ez Gizarte Segurantzako autonomoei dagokien araubidean (edo baliokidean) (Lan-bizitzaren ziurtagiria).

Enpresek nahiz interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

7. Emateko prozedura.

Oinarri Orokorretako 6. puntuan ezarritako prozeduraren arabera emango dira laguntzak. Kasu horretan, laguntza emateko prozedura artikulua honetan ezarritakoa izango da: azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 22.1 artikulua.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzak honakoak izango dira:

8.1. Gehienez 3.000 €ko dirulaguntza, edozein izaera juridikopean sorturiko enpresa jarduera sortzeagatik, jarduera burutzen duena pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa dela ere.

Eskaera egiten duena, pertsona fisikoa bada eta laguntzaren eskaera Lan-Sozietate edo beste edozein izaera juridikopean sortzen den gizarte ekonomiako bazkide izateko bada, hiru hilabete aurretik beraien artean kontratuzko erlazorik egon ez dela frogatu beharko da.

Gehienez 4 eskabide onartuko dira enpresa eta proiektu bakoitzeko.

8.2. Sortzen den enpresaren jardueraren izaera gizarte ekonomiakoa bada (lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiaketa komunitariorako kooperatibak eta lan-sozietateak), 5.000 €ko dirulaguntza gehigarria emango da sortutako enpresa bakoitzeko.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek, estatuko erakundeek, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin, gainontzeko dirulaguntzen araudian jasotakoaren kalterik gabe.

Laguntzak Oinarri Orokorren 12. artikuluan ezarritako moduan ordainduko dira, eta dirulaguntza osorik ordaintzeko egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzak lerro honetara zuzendutako zenbatekora mugatuak egongo dira, gainerako lerroetan sobera dauden zenbatekoak erabili ahal izateko kalterik gabe, behin lerro horiek ebatzi ondoren.

9. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautuko duen Ordenantzaren 12. artikuluan jasoak eta Oinarri Orokorraren 11. puntuan jasotako betebeharez gain, honako betebeharrak ere bete beharko ditu:

- 1) Gutxienez 12 hilabeteko epean jarraitzea enpresak alta emanda hura eratu zenetik Jarduera Ekonomikoen Zergan eta Gizarte Segurantzari, autonomoko (edo baliokideko) erregimenean.
- 2) Dirulaguntza eman ondoren, zertarako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez urtebetez.
- 3) Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.
- 4) Dagozkien egiaztatze ekintzen mende jartzea.

10. Egindako jarduera egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Diruz lagundutako xedea bete dela justifikatzeko onuradunek Oinarri Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkezteaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Gizarte Segurantzari, dagokion erregimenean, alta eman izanaren fotokopia.
- b) Soldatapeko langilerik badu, azken hilabeteko TC2 agiria.
- c) Soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria.
- d) Enpresa gutxienez 12 hilabeteen alta emana mantentzeko konpromisoa; oinarri hauetako 9. atala betez.

11. Proiektuak justifikatzeko epea.

Laguntza osorik ordaintzeko, beharrezkoa izango da oinarri espezifiko hauetako 10. artikuluan eskatutako egiaztagiria 2025eko abenduaren 15a baino lehen aurkeztea, egun hori barne. Bestela, dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera, laguntzaren % 40 ordainduko da kontura.

Nolanahi ere, III. eranskin honetan onartutako laguntzak justifikatzeko azken eguna 2026ko urriaren 15a izango da.

12. Bateragarritasuna.

Eranskin honetako dirulaguntza lerroa bateragarria izango da beste eraskinetako laguntzekin; betiere, bi lerroetan eskaera egin direla ziurtatuz eta adieraziz.

Laguntza hauek, beste Administrazioek eman ditzazketeenekin bateragarriak izango dira. Beti ere lagundu nahi den jardueraren zenbatekoaren kostua gainditzeko ez duten bitartean.

IV. ERANSKINA

I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan eta industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak.

1. Deialdiaraen xedea.

2025 aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdia egiten da lerro honen bidez I. sektorea, zerbitzuen sektorea, ostalaritza eta industria mailan eginiko kontratazioak (aldi batekoak nahiz kontratu mugagabeak) diruz lagunduko dira, edozein izanik ere kontratatuko duen enpresaren langile kopurua.

Ondorioz, honakoak izango dira diruz lagunduko diren jarduerak:

—Langileak kontratatzea.

Lehen sektoreari, zerbitzuen sektorea, ostalaritzari eta industria arloari, laguntza berezi bat eman nahi zaio. Horrela, lana aurkitzeko erraztasuna hobetuko duten neurriak bai eta langileen lan baldintzen hobekuntzarako, aldi baterako nahiz kontratu mugagabeak, lagunduz. Kontratazioa lanaldi osokoa edo zati batekoa izan daiteke eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartuta egon behar dute, kontratazeko laguntza hau emateko.

2. Diru-baliabideak.

2025 aurrekontu ekitaldian programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 75.000 €koa izango da eta 1.1100.471.241.00.01.2025 Ekonomia sustapena aurrekontu partidatik finantzatuko da.

3. Eskatzaileak eta jarduerak bete beharreko baldintzak.

Onuradunak eta kontratatuko diren pertsonak bete beharrekoak:

Onurak jaso ahal izango dituztenak lehen sektorea, zerbitzuen sektorea, ostalaritza eta industria arloa izango dira, edozein dela ere horien forma juridikoa, beti ere honako baldintzak betetzen badituzte:

Erakundeak bete beharreko baldintzak:

— Entitatearen sozietate-egoitza Azpeitian izatea.

— Sozietatearen egoitza Azpeitian ez balego ere, kontratazioa Azpeitian kokatutako lantegirako egitea.

Kontratutako pertsonak bete beharreko baldintzak:

— Deialdia argitaratzen den egunean kontratatuko den pertsona Azpeitian errolatuta egotea eta egoera horretan jarraitzea dirulaguntzaren epealdia amaitu artean.

— Aldi baterako kontratuen kasuan, sortutako enpleguak enpresa onuradunean diruz lagundutako epealdian batez besteko plantilan gehikuntza netoa sortu beharko du (Arau orokor moduan, diruz lagundutako aldi baterako batez besteko plantila kontratazio horiek egin aurreko zuzeneko hiru hilabeteetakoarekin konparatuz kalkulatu da plantilaren gehikuntza neto hori).

— Kontratazioa lanaldiaren zati baterako egiten bada, lanaldiaren ehuneko berrogeita hamarretik gorako kontratua izan beharko du.

Dirulaguntza gehienez 5 kontrataziotarako emango da enpresa bakoitzeko.

4. Baztertzeak.

4.1. Langileen kontratazioari dagokionez:

1. Gizarte Segurantzari, Ogasunari edota dagokion udal-ogasunari egin beharreko ordainketetan egunera ez egotea.
2. Laneko Arriskuen Prebentziorako araudia bete behar duten pertsona edo erakundeak balira, laneko arriskuen prebentziorako planik ez izatea, edota zigorra jaso izana izatea administrazio-ebazpen edo epai irmoaren ondorioz, laneko arriskuen prebentzio arloko arau-hauste larri edo oso larriagatik, dirulaguntza eskatutako dataren aurreko urtean.
3. Aldi Baterako Lanerako Enpresek (ABLE) egindako kontratazioak, langileak jartzeko enpresa erabiltzaileetan zerbitzuak emateko bidean.
4. Kanpora geratuko dira indarrean dagoen lan-arloko legediari jarraiki iruzur eginez egingo diren kontratu guztiak.
5. Inolaz ere ez da onartuko aurretik enpresa berean lan egin duten pertsonarik kontratatzea, langilearen baldintzak hobetu ezean: epealdiko kontratua mugagabe bihurtuz, edo lanaldi erdiko kontratu mugagabe bat lanaldi osoko kontratu mugagabea bihurtuz.

5. Diruz lagungarri diren jarduketei ekiteko eta amaitzeko epea.

Dirulaguntza lerro honen bidez lagunduko diren kontratazioak 2024ko urriaren 16tik 2025eko urriaren 15 arte sinatutakoak izan beharko dute.

6. Eskaerak aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaerak oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argiratutako egunaren biharamunetik aurkeztu ahal izango dira eta 2025eko urriak 15ean amaituko da.

—Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Deialdiaren Oinarri Orokorren 4.2 artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkezteaz gain, dirulaguntza hauek jasotzeko honako agiriak ere aurkeztu beharko dira:

- a) Langilearen nortasun-agiria, edota laneko baimena eta bizileku-baimena, langilea Europako Batasunetik kanpoko atzerritarra izango balitz.
- b) Lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emana, gehienez ere eskaria aurkeztutako data baino bost egun lehenagokoa.
- c) Egin den edo egingo den kontratazioaren datuak.
- d) Batez besteko plantila egiaztatzea: kontratatu aurreko hiru hilabetei dagozkien TC2ak.
- e) Lanaldi partzialeko kontratazioen kasuan, Kotizatzeako Datuen Txostena.
- f) Lanaldiari eta ordainsariari dagokionez, ezarri behar zaion hitzarmen kolektiboan zehaztua datorrena beteko dela egiaztatuko duen zinpeko aitorpena.

- g) Laguntza emateko irizpideak kontuan izanik, beharrezko beste edozein dokumentazio.
- h) ITA: Altan dauden langileen txostena.
- i) Aldi baterako kontratazioen kasuan, alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena. Diruz lagundu daitekeen kontratazioaren data jasotzen duen txosten bat, eta aurreko 3 hilabetei dagokien beste txosten bat.

7. Emateko prozedura.

Oinarri Orokorretako 6. puntuan ezarritako prozeduraren arabera emango dira laguntzak. Kasu horretan, laguntza emateko prozedura artikulua honetan ezarritakoa izango da: azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 22.1 artikulua.

8. Dirulaguntzen kopurua eta ordainketa.

8.1) Kopurua.

Honako laguntza hauek zehaztu dira, kontratuaren kontratazio-moduaren arabera.

32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa aplikatuz.

Lehen sektorea, zerbitzuen sektorea eta ostalaritza jardueretan gauzatutako kontratuetan:

- a) 600 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko, 6 hilabete edo gehiagorako bada. Laguntza hori 300 € izango da kontratazioa lanaldiaren zati baterako baldin bada.
- b) 1.200 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko, 12 hilabeterako bada. Laguntza hori 600 € izango da kontratazioa lanaldiaren zati baterako baldin bada.
- c) 2.000 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko kontratu mugagabe kasuan.
- d) 1.000 € zati bateko lanaldirako sortutako lanpostu berri bakoitzeko kontratu mugagabe kasuan.

Industria sektorea 49 langile edo gutxiago dituzten kasuei dagokionez:

- a) 1.000 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko, 6 hilabete edo gehiagorako bada. Laguntza hori 500 € izango da kontratazioa lanaldiaren zati baterako baldin bada.
- b) 2.000 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko, 12 hilabeterako bada. Laguntza hori 1.000 € izango da kontratazioa lanaldiaren zati baterako baldin bada.
- c) 3.000 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko kontratu mugagabe kasuan.
- d) 1.500 € zati bateko lanaldirako sortutako lanpostu berri bakoitzeko kontratu mugagabe kasuan.

Industria sektorea 50 eta 250 langile bitartean dituzten kasuei dagokionez:

- a) 500 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko, 6 hilabete edo gehiagorako bada. Laguntza hori 250 € izango da kontratazioa lanaldiaren zati baterako baldin bada.

- b) 1.000 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko, 12 hilabeterako bada. Laguntza hori 500 € izango da kontratazioa lanaldiaren zati baterako baldin bada.
- c) 2.000 € lanaldi osorako sortutako lanpostu berri bakoitzeko kontratu mugagabe kasuan.
- d) 1.000 € zati bateko lanaldirako sortutako lanpostu berri bakoitzeko kontratu mugagabe kasuan.

Zenbateko horiek guztiak % 25ean gehituko dira kontratazioa industri arloan kontratatzen den pertsona emakumea bada edo kontratatutako langabetuaren adina 45urtetik gorakoa bada. Gehikuntza hau % 50 artekoa izan ahalko da kontratatzen den pertsona emakumea bada eta 45 urtetik gora baditu.

Zenbateko horiek guztiak % 25 murriztuko dira, baldin eta kontratuaren modalitatea ikas-ekinezko prestakuntza-kontratua edo praktika profesionala lortzeko kontratua bada.

8.2) Ordainketa.

Laguntzak Oinarri Orokorren 12. artikuluan ezarritako moduan ordainduko dira, eta dirulaguntza osorik ordaintzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzak lerro honetara zuzendutako zenbatekora mugatuak egongo dira, gainerako lerroetan sobera dauden zenbatekoak erabili ahal izateko kalterik gabe, behin lerro horiek ebatzi ondoren.

9. *Onuradunaren betebeharrak.*

Dirulaguntzetarako Lege Orokorren 14. artikuluan eta Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautuko duen Ordenantzaren 12. artikuluan jasoak eta Oinarri Orokorren 11. puntuan jasotako betebeharrak gain, honako betebeharrak ere bete beharko ditu:

— Gizarte Segurantzari, Ogasunari eta dagokion udal ogasunari egin beharreko ordainketetan eguneratuta egotea.

— Lanpostua mantentzea, gutxienez diruz lagundutako epealdian.

— Aldi baterako Kontratutako langilea baja izaten bada, enpresak, 15 egun baino lehen, haren ordeztu beharko du, lehenengo langileak zituen kontratu-baldintza berberetan. Ordezkatze horren berri eman beharko zaio Azpeitiko Udalari, lehenengo langilearen baja gertatzen denetik hamabost egun baino lehenago.

— Enpresa onuradunak ezingo ditu aldatu ezargarri den enpresa-hitzarmen edota sektoreko hitzarmenean langile horren maila profesionalaren arabera dagozkion lan-baldintzak eta ordainsariak.

— Azpeitiko Udalak eska diezazkiokeen datu eta informazio guztiak ematea, dirulaguntza ematearekin zerikusia duten arloetan, bai eta haien terminoetan gertatuko diren gora-behera edo aldaketak jakitera eman ere, hamabost eguneko epearen barruan, haien jarraipen eta kontrol egokia egin ahal izateko.

10. *Egindako jarduera egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zuriketa epea.*

Diruz lagundutako xedea bete dela justifikatzeko, onuradunek, Oinarri Orokorren 13. artikuluan zehaztutako dokumentazioaz gain, honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute:

— Aldi baterako kontratazioen kasuan, Gizarte Segurantzari bidalitako kontratazioaren boletinak (TC2), kontratazioaren unetik eskatutako gutxieneko epealdia bete arteko epeari dagozkionak.

11. Zuriketa epea.

Dirulaguntza lerro hau justifikatzeko epea hilabetekoa izango da, lan-kontratua amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, kontratu mugagabeak direnean izan ezik.

Nolanahi ere, IV. eranskin honetan onartutako laguntzak justifikatzeko azken eguna 2026ko urriaren 15a izango da.

Adierazitako epean justifikaziorik eta txostenik ez badago, automatikoki baliogabetuko da, eta diruz lagundutako eta justifikatu gabeko zenbatekoa itzuli beharko da.

12. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Lerro honetan sartzen diren diruz lagungarriak diren jarduera guztiak elkarren artean bateragarriak izango dira.

Laguntza hauek, beste Administrazioek eman ditzazketenekin bateragarriak izango dira. Beti ere lagundu nahi den jardueraren zenbatekoaren kostua gainditzen ez duten bitartean.

Azpeitia, 2025eko ekainaren 5a. — Nagore Alkorta Elorza, alkatea